

# Inoiz irla izan ez zena, itsasoan galdutako ingeles baten oroitzapenak Zorrotzaurren

prestaldizkaria 2016-06-09 09:24 [Kultura-aisialdia](#) [Deustualdea](#)

Zorrotzaurreko penintsula irla bihurtzeko Deustuko kanalaren irekiera prozesuan bete-betean sartuta gauden honetan, *online* irakurgai jarri du Robert Alcockek 2015eko abenduan ZAWP eta La Haceriaren babesarekin paper formatuan argitaratu zuen *La isla que nunca fue: Memorias de un naufragio inglés en Zorrozaurre* liburua.



[Ikusi handiago](#) | [Argazki originala](#)

Egilearen esanetan *La isla que nunca fue* "memoria pertsonal bat" da "ia irla den honetan, ia ezezaguna bilbotar askorentzat, 15 urtez amesturiko bizitza bati buruzko esperientzia kontatzen duena". Obrak pertsonaia desberdinak ditu, Berthold Brecht eta Zaha Hadid bezala, sugandila eta martin arrantzaleak, Gargantua eta mila begiko piztia, okupak eta grafiteroak, espekulatzaileak eta artistak ageri dira bertan.

"Auzo beretik amestu diren etorkizun alternatibo, adostu, bizigai, berde, iraunkorren istorioa ere bada, kanpotik jaurti den etorkizun ofizialetik oso hurrun".

Liburu hau "memoria-ekintza bat da hondeatzaileen iritsieraren aurrean". Bere helburua "iruzur hadiaren sasoiaren egia txikiak kontatzea da". Federico Garcia Lorcak esan zuen, "hay que recordar hacia mañana". Obra honek "beste etorkizun, beste hiri, beste inoiz izan ez diren, baina oraindik izan ahal diren irlaren bidean bere harri-koskorra ekartzea" espero du Robert Alcockek.

## Egilea

Robert Alcock (Exeter, Erresuma Batua, 1970) Biologian doktorea da, idazlea eta diseinatzaile ekologikoa. Bilbora 1999an iritsi zen itsas-ekologiari buruzko ikerketa-lan bat gauzatzera. Bera eta bere neska-laguna Zorrotzaurren bizi izan ziren hainbat urtez, Zorrotzaurre Iraunkor Baterako Foroaren fundatzaile eta kide aktiboak izan ziren, eta oraindik lotura indartsuak mantentzen dituzte auzoarekin.

## Erreferentziak

“Liluragarria... berriro gogorarazten digu leku guztiek –barruti bakoitzak, auzo bakoitzak, herri bakoitzak, hiri bakoitzak- bere istorioa dutela... eta komunitate batek egiten duena defendatzea merezi duela.” Paul Scraton, [Elsewhere: a Journal of Place](#).

- Liburua orain online irakurtzeko

[issuu.com/zawpbilbao/docs/la\\_isla\\_que\\_nunca\\_fue](http://issuu.com/zawpbilbao/docs/la_isla_que_nunca_fue)

- Liburuaren bideo aurkezpena

[youtu.be](http://youtu.be)

- Egileari liburua zuzenean eskatzeko edota salmenta puntuak ikusteko:

[abrazohouse.org/island](http://abrazohouse.org/island)

Presentación "La isla que nunca fue"



## Fitxa

Izenburua: *La isla que nunca fue: Memorias de un naufrago inglés en Zorrozaurre*

Egilea: Robert Alcock

Gaia: Deustuko Erribera eta Zorrotzaurre

Argitaratzaileak: [ZAWP](#) / Asociación [Hacería](#) Arteak Elkartea (2015)

Hizkuntza: ingelera, gaztela eta euskara

ISBN: 978-1-944242-78-7



Zabaldu artikulua:

## Erantzun

Erantzuteko, izena emanda egon behar duzu. **Sartu komunitatera!**

Erabiltzaile izena

Pasahitza

>>> [Alta eman edo pasahitza berreskuratu](#)



## Deustualdea / Kultura-aisialdia

- [Inoiz irla izan ez zena, itsasoan galdutako ingeles baten oroitzapenak Zorrotzaurren](#)
- [Txuma Murugarren hasteko](#)
- [69 erraldoi buelta-bueltaka, Bizkaian inoiz izan den erraldoi bilkurarik handiena](#)
- [Bigarren Ertibil saria eskuratu du Irantzu Yaldeberek](#)
- [Sormenezko birziklapena ikasi eta partekatzeke](#)
- [Deustuko zubian interbentzino artistikoak egiteko deialdia zabaldu dau EHUK Bizkaie!](#)
- [Vietnamen zehar Berbaizu Euskara Elkartea](#)
- [Hitlerren Europan, Francoren Espainian eta egun homosexual izatea](#)
- ['Off Bilbao' Deustualdean dago](#)
- [Eraikuntza eta sormen tailerra Deustuko udaltegian](#)
- [Akelar taldearen ikuskizuna Ikusi eta Ikasin](#)
- [Joxemari Iturraldearen perlak, kolpeak, musuak eta traizioak Berbaizu Euskara Elkartea](#)
- [Antzerki Arina programaren IV. edizioa Pabilioi 6en](#)
- [Anari eta '8 begi' antzezlanak, Euskararen Etxean, arratsaldean](#)
- [Bikote barre eragilea](#)

## Jarraitu uriola.eus



*Hedabide honek honako erakundeek diru-laguntza jaso du:*